



Begiradak

Egunero lez, txorrita azpian bustitako orraziaz hala moduz txukundu ditu geratzen zaizkion ile apurrak. Hortzordeak jantzi ditu, gero. Harro begiratu dio ispiluan ageri den horri eta bere kolkorako pentsatu du: “94 urteko gizon autonomia zara eta gizartearentzat baliotsua zara oraindik”.

Etxepetik okindegiraino 75 metro. Ahalegin titanikoa egin beharko dute belaun-protesiak. Taka-takari tinko eutsi eta hantxe abiatu da ogitara. Zebra-bidean aurrera ohartu da enpresako lankide ohi baten alabak ikusi duela. Emakumeak penaz begiratu dio eta bere kolkorako pentsatu du: “Gizon hau zer izan zen eta begira denboraren joanak nola utzi duen; egunkaria eroatera joan beste zereginik ez du agure gizajoak, eta horretarako ere nahikoa komeria”.

Onik ailegatu da. Jende dezente ia kaleraino luzatzen den ilaran zain. Ondo. Espero bezala. Izan ere, puntako orduan joanda tenplea berreskuratzeko astia izan ohi du. Horri esker lortu du, gaurkoan ere, behin arnasa hartu eta eskaria dena segidan botatzea: “Eguerdi on. Txiki baten erdia, mesedez”. Dendariak arduraz begiratu dio eta bere kolkorako pentsatu du: “Aspaldian ez du ogi handirik erosten, ez eta gozoric ere; nahikotxo argaldu da eta bakarrik eta goibel dirudi”.

Etxera buelta ez da makala izan. Aldapan gora hesteak bota ditu, ia. Atariko bi koskak igotzearen desafioa ere

Uste dut aitonak,
amonaren falta
sumatzeaz gain,
emaztearentzat zen
pertsonearen falta
ere sumatzen duela.
Amonaren begirada
falta du; falta du
amonak ikusten zuena

erdipurdika, baina azkenean heldu da etxeko sarraila parera. Giltzari bi buelta. Taka-taka sartu du lehenbizi, eta atzetik bera. Korridorean aurrera ohartu da irratia piztuta utzi duela eta esatariaren ahotsa entzuten da: “...laster hasiko dira txertoaren hirugarren dosia pertsona zaurgarrienei jartzen...”.

Sukaldeko fluoreszentetako bat erre da, baina usain ona du kazolako legatzak. Ogia saskian utzi eta apirilaz gerroztik igandero-igandero mahai gainean jartzen duen J&B botila atera du armairutik. Bere andrearentzat bazkalosteko kafea ez zen jai egunetako otorduak borobiltzeko nahikoa kategoria, nonbait; *ttirrintintin* ttantta batekin ematen zien amaiera ofiziala triapakadei. Nostalgiaz akordatu da bere parean eseri ohi ziren begi urdin haiekin.



ANA MENDIA
EMAGINA

Amona ez dagoenetik aitonak edaten du whiskia bere omenez igandero-igandero; baina aitonak ezin du pentsatu amonak bere kolkorako pentsatzen zuena. Botila aterata amona presente izan dezagun nahi du aitonak, baina nik pentsatzen dut erritoak amona bera baino are presentetago egiten duela aitona alarguna. Uste dut aitonak, amonaren falta sumatzeaz gain, emaztearentzat zen pertsonaren falta ere sumatzen duela. Amonaren begirada falta du; falta du amonak ikusten zuena.

“Ohartu nintzen ez nintzela besteentzat nire buruarentzat ustez nintzen hura”, irakurri nuen behin. Akaso norberarentzat garenaz gain, bagara gainontzekoentzat garena ere. Nahiz izan litezkeen mugakoak bata eta bestea. Akaso begiradek eraikitzen gaituzte. Gizon baliotsua, agure gizajoa, erosle goibela, pertsona zaurgarria, aitona alarguna. Denak dira bera. Edo bakar bat ere ez.

Amonak basoa betetzen zuen bakioztzeko zeharka begiratzen nion eta nire kolkorako pentsatzen nuen: “Festazale errebeldea”. Gustuko nuen amonaren bueltako erantzun ia ikusezina. Ondo asko zekien amonak ez naizela batere *ttirrintintinzalea*, baina behin hasitakoa ondo bukatzearena berea dut eta egia da otordua borobiltzeko kafeak zerbait eskatzen duela atzetik. Lagun batek dioen moduan: bazkalosteko txokolatontza esaldi amaierako puntua bezain beharrezkoa da. ●